

[Eusk/Cast] Confirmacion oficial: El TAV no llevara mercancías

AHT GELDITU! NAFARROA :: 03/10/2022

El TAV se está construyendo a lo largo de todos estos años en base a una serie de mentiras: es la post verdad del TAV.

Baieztapen ofiziala: AHTak ez du merkantziarik eramango

AHTa urte hauetan guztietan eraikitzen ari da hainbat gezurretan oinarrituta: **AHTaren post-egia da.**

Gure agintariek zioten AHTak Europarekin lotuko gintuela. Baina Akize eta Hendaiaren arteko lotura bide itsuan aparkatuta dagoenez, EAJ Europako Batzordea etsi-etsian presionatzen ari da Frantzia euskal Y-arekin bat egitera behartzeko.

Era berean, esaten ziguten ekonomia hobetuko zuela. Errealitatea, ordea, guztiz kontrakoa da. Izan ere AHTaren gisako obra faraonikoen eraikuntzak eta horrek dakarren zorpetzeak diru publikoaren xahuketa ikaragarria suposatzen du, murrizketa eta pribatizazioak eraginez eta finean, populazioaren gehiengoaren bizi baldintzak prekarizatuz.

Milaka lanpostu sortzeaz ere hitz egiten zuten. Orain ordea, ikusten ari gara AHTaren obretan laneko esplotazio eta prekariedade baldintzak eguneroko ogia direla. Horren isla, duela bi hilabete eskas hamargarren biktima gertatu zen EHko makro azpiegitura honen lan esparruetan.

Gaur egun ere esaten digute AHTa ingurumenaren aldetik jasangarria den garraio modu bat dela, CO2 isurketarik sortzen ez duena. Guk ordea ibar, mendi zein akuiferoen suntsipen eta kutsadura, eta material zein energiaren gastu izugarriak egunez egun egiazta ditzakegu. Gainera, CO2 isuriei buruzko azterlanak faltsutu egin dituzte, urte horietan guztietan obran bertan sortutako emisioak ez dituztelako kontuan hartzen.

Eta azkenik, merkantziak garraiatuko zituela ere esaten ziguten, eta, beraz, eguneko 10.000 kamioi kenduko zituela errepideetatik, euskal Y-arekin bakarrik. Bada, gezur handi hori, bere eraikuntza justifikatzeko erabiltzen zuten argudiorik garrantzitsuenetako bat, baita ere desmuntatu berri da. Iñaki Arriolak, Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuak, duela egun gutxi baieztatu du oposizioak hasiera hasieratik salatu duena: AHTk ez duela merkantziarik eramango, Espainiako estatuan kilometro bakar batek ere eramaten ez duen bezala. Bien bitartean, Bernardo Cirizak, Nafarroako gobernuan kargu bera duenak, Iñaki Arriolaren adierazpenen biharamunean, behin eta berriz esan zuen AHTaren Nafarroako korridoreak Nafarroako industria-sektoreari aukera emango diola

merkantzien garraioaren bidez lehiakorrago izateko, eta, aldi berean, murriztu eginen dituela errepide bidezko salgaien garraioak eragindako energiaren kontsumoa eta sortutako CO2 isurketak. Ergeltzat hartzen gaitu edo zer?

AHT Gelditu Nafarroak salatzen du kapitalismo globalizatzailearen egungo merkantzien garraio neurrigabearen beharra, edozein bitarteko dela ere, baina soilik herritarrei gezurra esan dietelako, **politikari gezurri horiek guztiak berehala dimititu beharko lukete, gizartea nahita engainatzeagatik epaitu beharko lituzkete, eta EHko AHTko proiektu guztiak berehala gelditu beharko lirатеke.**

Denborak aurrera egin ahala, AHTaren proiektuari mozerroa kentzen ari zaio, eta bere trikimailu guztiak argitara ateratzen ari dira. **Gero eta argiago dago AHTa gaur egun suntsipenaren, kutsaduraren, xahutzearen, zorpetzearen, ustelkeriaren, klasismoaren, lan-esplotazioaren, ohiko trenaren desegitearen, elite ekonomikoentzako onuraren eta klase herrikoientzako hondamendiaren sinonimoa dela.**

GELDI DEZAGUN AHTA- GELDI DEZAGUN KOLAPSOA- GELDI DEZAGUN KAPITALISMOA

[Castellano]

Confirmacion oficial: El TAV no llevara mercancías

El TAV se está construyendo a lo largo de todos estos años en base a una serie de mentiras: **es la post verdad del TAV.**

Decían nuestros gobernantes que el TAV nos iba a conectar a Europa. Pero como la conexión entre Dax y Hendaya esta aparcada en vía muerta, el PNV está presionando desesperadamente a la Comisión europea para que obligue a Francia a realizar la unión con la Y vasca.

También nos decían que iba a mejorar la economía cuando la realidad es que precariza las condiciones de vida de amplias capas de la población que se ve afectada por la política de recortes y privatizaciones debido al derroche en la construcción de obras faraónicas como las del TAV, y las consiguientes deudas que generan.

También hablaban de la creación de miles de puestos de trabajo cuando estamos viendo que las condiciones de explotación y precariedad laboral en las obras del TAV son el pan de cada día, habiéndose producido hace escasos dos meses la décima víctima mortal en las obras de esta macro infraestructura en EH.

También nos siguen diciendo hoy en día que el TAV es una forma de transporte medioambientalmente sostenible que no genera emisiones de CO2 cuando la realidad de destrucción y contaminación de valles, montes, acuíferos y el ingente gasto de materiales y energía la podemos comprobar día a día. Además, los estudios de emisiones de CO2 están

falseados por no contar con las emisiones producidas en la obra en sí a lo largo de todos estos años.

Y por último, también se nos decía que iba a transportar mercancías y por tanto iba a eliminar, solo con la Y vasca, 10.000 camiones diarios de las carreteras. Pues bien, esta gran mentira, uno de los argumentos más importantes en los que se basaban para justificar su construcción también se acaba de desmontar. **Iñaki Arriola, consejero de Transportes del gobierno vasco** ha confirmado hace escasos días lo que la oposición venimos denunciando desde el comienzo: que el TAV no llevará mercancías, como no las lleva ni un solo kilómetro de TAV en el estado español. **Mientras tanto, Bernardo Ciriza, consejero de Transportes del gobierno de Navarra,** al día siguiente de las declaraciones de Iñaki Arriola sigue insistiendo erre que erre en que “el corredor navarro del TAV va a posibilitar al sector industrial navarro el transporte de mercancías haciéndolo más competitivo, reduciendo al mismo tiempo el consumo de energía y las emisiones de CO2 producidas por el transporte de mercancías por carretera”. ¿Nos toma por idiotas o qué?

AHT Gelditu Nafarroa denuncia la necesidad del capitalismo globalizador del actual transporte desmesurado de mercancías, sea por el medio que sea, pero solo por el hecho de haber mentido a la población de esta manera, **todos estos políticos embusteros deberían de dimitir inmediatamente, ser juzgados por engañar deliberadamente a la sociedad y todos los proyectos de TAV de EH deberían pararse inmediatamente.**

Con el paso del tiempo se está desenmascarando el proyecto del TAV saliendo a la luz todas sus patrañas. Esta cada vez más claro que el TAV hoy en día es **sinónimo de destrucción, contaminación, despilfarro, endeudamiento, corrupción, clasismo, explotación laboral, desmantelamiento del tren convencional, beneficio para las elites económicas y ruina para las clases populares.**

PAREMOS EL TAV-PAREMOS EL COLAPSO-PAREMOS EL CAPITALISMO

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-confirmacion-oficial-el>